

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA SAILA

**168/2024 Foru Agindua, apirilaren 8koa, zeinaren bidez onesten baita Okondo (Araba) eta Gordexola (Bizkaia) udalerrietan kokaturik dagoen eta Okondoko herriaren jabetzakoa den onura publikoko 80 zenbakiko Arrola eta Aranbalza deritzon mendiaren mugaketa eta mugarritzea**

Okondoko Udalak hala eskatuta, Okondo (Araba) eta Gordexola (Bizkaia) udalerrietan kokaturik dagoen eta Okondoko herriaren jabetzakoa den Arrola eta Aranbalza deritzon onura publikoko mendiaren behin-behineko mugaketa eta mugarritzea egin da. Mendi hori Arabako Lurralde Historikoko onura publikoko mendien katalogoan dago sartuta, 80 zenbakiarekin.

Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren artikuluek xedatutakoarekin bat etorri bideratu da espedientea, eta baita, modu osagarrian, otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onetsitako Mendien Arautegiak xedatutakoarekin bat etorri ere, zeina indarrean baitago Mendiei buruzko Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. puntua oinarritzat hartuta (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa; eta 10/2006 Legea, apirilaren 28koa).

Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan -1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduak behin betiko onetsia-, mendiari buruzko datu hauek ageri dira: Arrola eta Aranbalza, 80 zenbakia; 100 hektareako azalera edukiera; Okondoko herriarena.

Mugaketaren aurretiko memoriatik onura publikoko 80 zenbakiko Arrola eta Aranbalza mendiak jabetza erregistroan duen inskripzioari buruzko datuak lortu dira, honako tituluei jarraikiz:

- 5. mailako beste zati bat, Arrola dermioan: berrogeita hamar hektarea, lauorgeri area eta lauorgeri hamar zentia area ditu (...), Amurrioko Jabetza Erregistroan ageri da, Okondoko Udalararen 14 liburuaren 463 liburuxkaren 49 orrian dago izena emanda, 1022 finka, 1. inskripzioa, Okondoko Udalaren alde.

- 5. mailako beste zati bat, Aranbalza dermioan: berrogeita hamalau area eta hogei zentia area ditu (...), Amurrioko Jabetza Erregistroan ageri da, Okondoko Udalararen 14 liburuaren 463 liburuxkaren 53 orrian dago izena emanda, 1026 finka, 1. inskripzioa, Okondoko Udalaren alde.

Apirilaren 9ko 182/2013 Foru Aginduan xedatutakoari jarraituz, onura publikokotzat jo zen, eta Mendien Katalogoko 80. mendian 20.377 m<sup>2</sup>-ko azalera sartu zen, Okondoko 4 poligonoko 171 zenbakiko katastro lurzatiari dagokiona, zeina Okondoko Udalak erosi baitzuen truke baten bidez.

Bestalde, Okondoko Udalak eskatu du onura publikoko deklaratzeko eta Okondoko udalerriko 4 poligonoko 145 eta 162 zenbakietako katastro lurzatiak 80 zenbakiko onura publikoko mendian sartzea. Lurzati horiek 15.952,30 m<sup>2</sup>-ko azalera dute (12.871,78 m<sup>2</sup> eta 3.080,52 m<sup>2</sup>, hurrenez hurren), eta erregistro finka bakarri osatzen dute (Okondoko 1.398 zenbakiduna), "Mastondo" izeneko aurkintzan kokatua eta muga hauek dituena: iparraldean, ekialdean eta mendebaldean, Okondoko Udalararen jabetzako "Arrola eta Aranbalza" izeneko onura publikoko mendia, Arabako Lurralde Historikoko Onura publikoko mendien katalogoan 80. zenbakiarekin jaso.

Finka hori Okondoko Udalak erosi zuen, 2014ko abenduaren 17an, jabe pribatuarekin egindako salerosketaren bidez. Salerosketa hori eskritura publikoan jaso zen María Gomeza Villa notarioaren aurrean, eta Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago: Okondoko 1.398 finka, 1014 liburukia, 36 liburua, 222 folioa, 6. inskripzioa.

Okondoko Udalak mendi partikular hori erosi zuen baso ondare publikoa sendotzeko eta hobetzeko, mendien onura publikoaren printzipioekin bat etorriz.

Okondoko 4 poligonoko 145 eta 162 katastro lurzatiak onura publikokotzat jotzeak eta onura publikoko 80 zenbakiko mendian sartzeak baso ondare publikoa sendotzea eta handitzea dakar, bai eta 80 zenbakiko onura publikoko mendiaren egoera fisikoa hobetzea eta haren kudeaketa sinplifikatzea ere. Lurzatiak onura publikoko mendian sartzea legerian zehazki islatzen den jardun ildo batean kokatzen da: 1962ko Mendien Arautegiak (110.2 artikulua) mugaketa prozeduretan finkak elkartzeko aukera jasotzen du, baita Arabako Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 14.3 artikulua ere, eta jardun hori berresten du, erosteko eskubidea izateko lehentasuna ematen baitie inguruko mendien jabe diren erakunde publikoei (Mendien Foru Arauaren 8. artikulua).

Neurketa lanak 2021eko maiatzaren 21ean eta 28an eta irailaren 17an egin ziren, eta hala jasotzen da horri buruz egindako aktetan.

Prozedura, hasiera batean, mugaketa egoera aitortzen zuen iragarkia ALHAOn argitaratuta (16. zenbakia, 2021eko otsailaren 10a) hasi zen. Prozedura hori 9/21 espediente zenbakiarekin izapidetu zen, eta iraungitza jo zen Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 12ko 4/2024 Foru Aginduaren bidez.

Urtarrilaren 17ko 9/2024 Foru Aginduaren bidez, eta 296/23 espediente honen barruan, mendia mugatzeko eta mugarrizteko prozedurari hasiera ematea erabaki zen, bai eta iraungitako espedienteko egintza independenteak sartzea ere, hala nola interesdunek dagozkien eskubideak egiaztatuzko aurkeztutako dokumentazioa eta egindako neurketen aktak. Bi foru aginduak ALHAOn argitaratu ziren, 16. zenbakian, 2024ko otsailaren 7an.

9/2024 Foru Aginduaren laugarren xedapena betez, espedientea jendaurrean jarri zen Okondoko udaletxeko bulegoetan, interesdunek hamabost eguneko epean hura aztertu eta hogeita hamar eguneko epean, hau da, 2024ko martxoaren 20ra arte, erreklamazioak egin ahal izan zituzten. Epe horiek iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasi ziren.

Iragarkiaren testua bide elektronikoz eta hartu agiridun gutun bidez jakinarazi zitzaizkien interesdun ezagunei. Jakinarazpenarekin batera, honako hauek eman zitzaizkien interesdunei:

– “Txosten proposamenaren zirriborroa. Onestea Okondo (Araba) eta Gordexola (Bizkaia) udalerritan kokaturik dagoen eta Okondoko herriaren jabetzakoa den onura publikoko 80 zenbakiko Arrola eta Aranbalza deritzon mendiaren mugaketa eta mugarritzea”, 2024ko urtarrilaren 25ekoa.

– Mugatutako mendiaren planoak, 1:6.000 eskalan.

Jendaurreko epean ez zen erreklamaziorik jaso, ez Okondoko Udalean, horretarako emandako ziurtagiriaren arabera, ez Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean, egindako kontsulten arabera.

296/23 espedientearen jasotako txostenak, neurketei buruzko aktak, planoak, erregistro topografikoak eta agiriak ikusi eta aztertu dira, eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan xedatutakoa hartu da kontuan.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta bat etorriz 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Okondo (Araba) eta Gordexola (Bizkaia) udalerritan kokaturik dagoen eta Okondoko herriaren jabetzakoa den onura publikoko 80 zenbakiko Arrola eta Aranbalza deritzon mendiaren mugaketa eta mugarritzea, 293/23 espedientearen agertzen diren akten, erregistro topografikoaren, txostenen eta planoaren arabera. Honela geratu da mendiaren deskribapena:

Katalogoko zenbakia: 80. Izena: Arrola eta Aranbalza.

Udalerriak: Okondo (Araba) eta Gordexola (Bizkaia).

Jabea: Okondoko herria.

Onura publikoko 80 mendiaren azalera, guztira: 43 hektarea, 30 area eta 76 zentiarea.

Espezia: *Intsinis pinua*, *radiata pinua*, *eucalyptus eukalptoak*.

OPko 80 mendiaren erreferentzia Okondoko Udalaren landa katastroan: Okondoko udalerriko (Araba) 4 poligonoko 80, 145, 158, 159 162, 163 eta 171 lurzatiak eta Gordexolako udalerriko (Bizkaia) 5 poligonoko 120 lurzatia.

Mugak:

Iparraldean: Bizkaiko OPko mendien katalogoko "Ubalza/Idubaltza" izeneko OPko 91 zenbakiko mendia, Gordexolako Udalarena, eta jabetza pribatuak.

Ekialdean: jabetza pribatuak.

Hegoaldean: jabetza pribatuak eta Idubaltzako bide publikoa.

Mendebaldean: jabetza pribatuak.

Barrendegia:

A. Okondoko 4 poligonoko 141 zenbakiko katastro lurzatiak osatua, jabetza pribatukoa eta 3.673 m<sup>2</sup>-ko azalera duena.

Bigarrena. Aitortzea jabetza pribatua dela A epigrafean jasotako barrendegia.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitutzat ematea eta bide judicial zibila irekitzat.

Laugarrena. Mendiaren deskripzioan jasotzen diren datu berriak Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogora eraman daitezela, dagozkien idazpenak eginez, baita landa katastroa eta jabetza erregistrora ere.

Bosgarrena. Ebazpen hau jakinaraztea interesdunei eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jakinarazi eta ondorengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuari, bat etorritik Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 8a

*Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**